

211/2012 DEKRETUA, URRIAREN 16KOA, I. ERANSKINA

Erreferentziako agiriaren edukia:

a) Aplikatu beharreko ingurumen arloko helburu estrategikoak, jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak, bai eta horiei loturiko adierazleak ere, eta hala badagokio, plana lantzean kontuan hartu beharreko ezarritako edo proposatutako muga aplikagarriak. Gainera, erreferentziako agiria prestatzeko kontuan hartu diren arauzko, erregelamenduzko eta onarpen orokorreko iturriak ere adieraziko dira.

b) Ingurumen-ebaluazioaren eremu geografikoa.

c) Eremu aipagarriak ondo zehaztea, hainbat ikuspuntutatik: kontserbazioa, hauskortasuna, kalitate ekologikoa eta paisaia-kalitatea, adierazgarritasuna, dibertsitatea, heldutasuna, landarediaren egitura, basabizitzarako garrantzia, natura-balioen berezitasuna edo babes berezia, bai eta, horrelakorik badago, ebaluazioaren eremuko ingurumen-arazoak ere. Dokumentazio kartografikoa.

d) Eremu batzuk zehaztea, non etorkizunean egingo diren jarduketak arazotsuak edo onartezinak izan daitezkeen ingurumen-ondorioetarako. Hala badagokio, ingurumen-organoaren iritziz onarpen orokorreko arauetan edo azterlan teknikoetan ezarritako muga-balioak gainditzen dituzten jarduerak edo erabilerak direlako aldatu edo kendu beharko liriatekeen jarduketak.

e) Egindako aldez aurreko kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra, espresuki aipatuta, halakorik badago, erakunde kontsultatuek edo herritar interesatuek proposatzen dituzten alternatibak, sustatzaileak planteatzen dituenen gehigarri.

f) Behar izanez gero, ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenari erantsi behar zaion informazio eta dokumentazio gehigarria.

g) Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa, bai eta ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenean duten irismenarena ere.

h) Organo sustatzaileak Natura 2000ko tokietan eragin nabarmena edukitzeko aukeraz emandako ondorioen balorazioa, eta ebaluazio egokia eskatzea, hala badagokio, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritako araudiari jarraiki, eta kasuak behar duen xehetasun mailarekin (Habitategi buruzko 92/43/EEE zuzentarauaren 6. artikulua 3. eta 4. paragrafoen xedapenei buruzko metodologia-gida, 1. fasea, bahetzea).

i) Ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostenean kontuan hartu beharreko adierazle kuantitatibo eta/edo kualitatibo proposamena, planaren eta haren proposamenean ingurumen-eraginaren ebaluazioa egiteko eta horren ondorioak ikuskatzeko programa eraginkorra aurkezteko. Behar izanez gero, inpaktuen balorazioa egiteko gehienezko mailak edo erreferentziako mailak ezartzea.

j) Eragindako administrazio publikoak eta interesa duten herritarrak identifikatzea (ondoren, plana sustatzen duen organoak kontsulta egin beharko die herritar horiei).

k) Jendaurreko informazioaldia eta kontsultak egiteko erak, iraupena eta epeak (gutxienez, 45 egun izango dira) definitzea. Horretarako, hala dagokionean, plana edo programa onartzeko prozeduran ezarritako entzunaldiko eta jendaurreko informazioko izapideak hartuko dira kontuan, izapide horiek eta ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagozkionak aldi berean egin ahal izateko.